

URRIKIAREN JUBILEUA

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa bururatu zeneko 50. urtemugan zabalduko da Jubileua: Eliz Gurasoek beren garaikideeri molde ulergarriagoan hitz egiteko beharra senditu zuten, Ebanjelioa molde berrian iragartzeko tenorea etorria zen. San Joan XXIII.ak zioen: "*Gure garaian, Kristoren Emaztea den Elizak nahiago du urrikiaren sendagaia erabili eta ez gogortasunaren armak eskuan hartu...*" Paulo VI. dohatsuak bere aldetik: "*...doktrina-aberastasun honek guziak helburu bakar bat du: gizakiari zerbitzu egitea; bizitzako gorabehera guzietan, bere ahultasun guzietan, bere premia guzietan zerbitzu egitea gizakiari*". Ez du, bistan dena, ustegabetara egiten bi gertakarien arteko lotura Frantsizkok. Karia hortara argitaratu duen Buldaren irakurketarik (nik) atera erakaspenak proposatzen daukitzuet.

Urrikiak, hebreeraz, erran nahi du bihotz barne-barnea, minaren eta atsegabearen ondorioz inharrosirik gertatzen diren **erraiak (haltsarrak)**. Aita edo ama batek haurra eri edo galdurik ikusten duenean bizi duen inharrosaldiaren gisakoa. **Enpatia**-ren zentzurat. Urrikiak, bizitzako bidean aurkitzen duen haurrideari egiazko begiekin begiratzen dion presunaren bihotzean dagoen oinarritzko legea da. Jesusi, bestearen sufrimendua, edonor izanik, barne-muinetaraino sartzen zitzaion, eta bere ekintzaren oinarri bilakatzen zen.

Jesu Kristo Aitaren urrikiaren aurpegia besterik ez da. Jesus "den guzia maitasuna da... Bekatariekin, behartsuekin, baztertuekin, eriekin eta sufritzen dauden presunekin bereziki egiten dituen ezaugarriek urrikiaren bereizgarria dute berekin. Jesusen baitan guzi-guziak urrikiak adierazten du." Eta urrikiak beti izango da edozoin bekatu baino handiagoa.

Alabaina, "Jainkoaren urrikiak ez da ideia abstraktua, hark bere maitasuna adierazteko bide den errealitate zehatza baizik... Erran daiteke "erraietako" maitasuna dela egiazki."

"Jainkoak bere herriarekin duen historia, salbamen-historia bihurtzen du urrikiak."

Jainkoak ez du bere maitasuna soilik baieztatzen, baizik eta begi-bistako egiten du, hunki daitekeen zerbait. Hunen froga argienetarik da barkamena, gure kulturaren baztertua edo kasik desagertua den bertutea. "Bizitza berri batera pizten duen indarra da barkamena, eta etorkizunari itxaropenez begiratzeko indarra sortzen du gure baitan."

Urrikiak iragartzeko eginbidea du Elizak. Baitezpadakoa da urrikiak lehen presunean bizitzea eta beraren lekuko agertzea. Urrikiz bizitzera deituak gaude. "Ezinikusia, amorrua, indarkeria eta mendekua baztertzea zoriontsu izaitzeko beharrezko baldintza da."

Urrikirako gai izaitzeko, lehen lehenik Jainkoaren Hitza entzutek hasi behar dugu. Horrekin batera, ez gaitzestea eta ez kondenatzea izan behar dugu lege, eta ere emaita, eskuzabaleko agertzea, "Aita bezala urrikalkor" izaita.

Urte Saindu hau izan daiteke ere periferia existentzial kontrajarriaren bizi diren guziei hurbiltzeko parada. "Zabal ditzagun begiak munduko miseriei begiratzeko, duintasunik gabe bizi diren hainbeste anai-arreben zauriak ikusteko... Gure eskuak tinka ditzatela haien eskuak...eta elkarrekin hautsi dezagula itxurakeria eta norberekoikeria estaltzeko ainitzetan erreki nagusitzen den axolagabekeriaren hesia."

Eta lehiatzen gaitu Aita Sainduak **gorputzeko eta izpirituzko urriki-egintzak** hausnartzera eta bideratzera, gauzak zehazki zerrendatuz. *Gorputzeko urriki-egintzak*: gose denari jatera emaita, egarri denari edatera emaita, biluzik dagoena janzte, arrotza etxean hartzea, eriak laguntzea, kartzelatuak ikustera joaita, hileri lur emaita. *Izpirituzko urriki-egintzak*: behar duenari kontseilu emaita, ez dakienari erakustea, gaizki egin duena zuzentzea, triste dagoena kontsolatzea, zordunei barkatzea, pisuak diren presunak pazientziaz jasaita, bizien eta hilen alde Jainkoa otoiztea. Eta moldea ere zehazten dauku: "*Urriki-egintzak egiten dituenak, egin bitza alaitasunez*" (Erm 12, 8). Hau guzia gauzatzeko, Garizuma izan behar da aldi egokia.

Luzeki argitzen du ere Aita Sainduak justiziaren eta urrikiaren arteko harremana. "Urrikiak ez da justiziaren kontrakoa...Huts egiten duenak zigorra bete beharko du. Baina hori ez da helburua, bihotz-berritzearen hastapena baizik, barkamenaren samurtasuna nabaritzen baita...maitasunaren esperientzia baitago egiazko justiziaren oinarrian."

Azken aldera, garai hauetan probetxugarri izan behar zaigun adierazpen hau egiten du Aita

Sainduak: *"Elizaren mugak gainditzen dituen balioa du urrikiak. **Judaismoarekin eta Islamarekin lotzen gaitu**, haiek ere Jainkoaren ezaugarriak bereziena bezala ikusten baitute urrikia... Jubileu Urte hunek bidera dezake erlijio hauekin edota beste tradizio erlijioso nobleekin aurkitzea".*

Bururatzean, laguntzaile gisa otoizten ditu Maria, Urrikiaren Ama, eta ere urrikiaren apostolu handia izan den santa Faustina Kowalska.

Azkenik, bere eginbidera deitzen du Eliza: "Urrikiaren egiazko lehenbiziko lekuko izaitera deitua dago Eliza, urrikia Jesu Kristoren Agerpenaren muina dela aitortuz eta biziz."

Peio Ospital
2015-11-30